


# *ttipi-ttupa*

DOMINGUEZ, Inma  
Izotzaldea  
31770 LESAKA  
Fran Con 34/79

1993.eko Abenduak 2

123. zenbakia

dohain banatzen da



**EZ DUT DEUS BALIO**

# BAT BIRENTZAT BORDATXO

*Dantzalekuan*

ABENDUAREN 5eko SARRERAREKIN  
DEBALDE SARTUKO ZARA 7an

ABENDUAK 5, IGANDEA

## COJON PRIETO

## Y

## LOS HUAJOLOTES

ABENDUAK 7, ASTEARTEA

## DISKOTEKA DEBALDE

(ABENDUAREN 5eko SARRERAREKIN)



# BORDATXO

DONEZTEBE

Centro Comercial



# LUIS MARIANO

Irun

## 40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,  
2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,  
4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegi bat,  
2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,  
dekorazio denda bat, supermerkatu bat,  
aseguro etxe bat, ileapaindegi mixto bat, drogeria bat,  
bidai agentzia bat, PVCko nahix zurezko leiho eta ateak,  
hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...

*Denetarik  
gauzarik hoberenak.  
Irun erdi-erdian.  
Parkina eta guzi.*

# non - zer

**Erredakzio arduraduna:** Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Pello Apezetxea, Juainas Paul, Cristina Boan, Bittori Telletxea.

**Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Marta Iturria, Txema Aldabe, Ixabel, Josune, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Ainhoa Mutuberria, Koro Irazoki, Margari, Pello Etxegia, Daniel Martiarena, Txema Urrotz, Patxi Otxandorena, Joseba Azpiroz, J. Igarabide, Pablo Mendiburu, Juana Mari Saizar, Mixel, Jacqueline, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa eta Josetxo Susperregik.

**Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*.

**Laguntzaileak:** Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Goizueta, Leitza eta Berako udalak...

**Inprimategia:** Gertu Kooperatiba Elkarte (Oñati)

*ttipi-ttapa* aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

## *ttipi-ttapa*

**HAMABOSTEKARIA**

Lege Gordailua: NA-1324/85

Tirada: 5.600 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa.: 63 11 88

Faxa: 63 12 91

**4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.

**7 HONTAZ ETA HARTAZ**

**8 IRAKURLEAK MINTZO**

**9/24 HERRIZ HERRI**

Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarana, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...

**25 KIROLAK:** Iñaki Perurenak esku bakarrarekin zuen marka hobetu du.

**26 ERREPORTAIA:** «Horrela ez dago irauterik», zerri produkzioan, bakoitza bere aldetik dabilen baserritarra, kanpoko kompetenziaren eta produktore haundien menpe dago.

Joxemanuel Irigoien

**28 ELKARRIZKETA:** Jose Javier Etxeberria: «Ruandan analfabetoak dira gehienak, edukazio mailan dute beharrik haundiena».

Aitor Arozena

**30 MERKATU TTIKIA**



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko laguntza jaso du

**Beharrezko telefonoak**

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061

**OSASUN ZENTRUAK**

Elizondo.....452367 / 580235  
 Doneztebe ..... 450300  
 Lesaka.....637428/637336  
 Leitza .....510248 / 510573

**KONTSULTAK**

Arizkun ..... 453039  
 Gartzain ..... 580451  
 Oronotz-Mugaire ..... 592024  
 Ituren ..... 450183  
 Sunbilla ..... 450283  
 Goizueta ..... 514067  
 Igantzi ..... 637755  
 Arantza ..... 634131  
 Bera..... 630929 / 630036  
 Etxalar.....635105  
 Urdazubi.....599130

**ANBULATORIOAK**

Irun ..... 630264/621106

**OSPITALEAK**

Irungo ospitalea ..... 614600  
 Nafarroako ospitalea ..... 102100  
 SSKo urgentzi zerbitzua ..... 246750  
 Virgen del Camino  
 erresidentzia ..... 109400  
 Gurutze Gorria ..... 226404

**ANBULANTZIAK**

Oitz ..... 450242/450805

**DYA**

Lesaka (larrialdiak).....(943) 464622  
 Doneztebe (larrialdiak).....171717

**FUNERARIA**

Doneztebe.....(908)776314  
 Lesaka.....637404  
 Elizondo .....580924

**SUHILTZAILEAK**

Oronotz-Mugaire ..... 592255

**GARRAIOAK**

Bidasotarra ..... 631150  
 Baztanesa ..... 580129  
 Leitزارan ..... 515018

**HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:**

Elizondo ..... 580730  
 Lesaka ..... 637154  
 Bera ..... 630261

**ABERIAK:**

Iberduero ..... 450335/450336

**Botikak**

► **Abenduaren 5a** bitarte, Etxalar, Doneztebe eta J. Iturralde (Elizondo) eta Irurita.

► **Abenduaren 6tik 12ra**, Lesaka, Sunbilla eta F. Lezaun (Elizondo).

► **Abenduaren 13tik 19ra**, Bera, Ituren eta J. Iturralde (Elizondo).

Kontsulta telefonoa 227718.

**Deiak**

► **LESAKA**

UDAZKEN GOXUA

**Abenduaren 2an**, 10,30etan rock kontzertua 'Noise Hole' taldearekin. **Abenduaren 16an**, 9etan Txiste aforia Guillermo Segurola txiste kontalariarekin.

**Zinema**

► **DONEZTEBE**

**Abenduaren 4-5ean** 'Sin perdón'. **Abenduaren 7-8an** 'El guardaespaldas'. **Abenduaren 11-12an** 'Belle Epoque'.

**Kontzertuak**

► **LESAKA**

KULTUR ASTEA

**Abenduaren 3an**, 11etan Arranon rock kontzertua eta 12etan Saskin flamenko gaua. **Abenduaren 4ean**, 10etan rock kontzertua frontoian: *Ametsgaizto*, *Etsaiak* eta *Sutagar*. **Abenduaren 6an**, 10,30etan Atxaspin 'Osgasmix Tothpics' + Sorpresa. 11etan Koxkillan 'Mal Temple' blues. **Abenduaren 7an** 9etan plazan, *Minxoriak*.

**Bota bertsoa**



**Izaskun ETXEPETELEKU**

Bortziritako Bertso Eskola

**Gaia:** Joan zen uda eta negua heldu da

**Neurria:** Zortziko haundia

Uda pasa zen eta orain neguan gara sartutzen nahiz eta oso jende gutxiri zaion negua gustatzen eguldi hotzak eta euriak bait dira orain hasitzen urtaro honek gauz bat du ona gabonak dira ailetzen.

Jende gehienai gustatzen zaio mendin pixko bat elurra hotza egiten du baina halare ez daukagu beldurra sua pizteko badaukagu etxean nahiko egurra aurtengo negu hotz hau ez da izanen bate laburra.

## Erakusketak

### ► ELIZONDO

#### PINTURA

Rafael Ubani margolan erakusketa Arizkunenean urtarrilaren 7a bitarte.

## Hitzaldiak

### ► ELIZONDO

#### BAZTANDARRAK AMERIKETAN

Abenduaren 4ean arratsaldeko 7etan Arizkunenean Alberto Aldairen eskutik 'Baztandarrak Ameriketan, batez ere Mexiko eta Chilen XX. mendean'.

## Bertsoak

### ► ELIZONDO

Abenduaren 3an, 12,30etan frontoian: M. eta E. Arozena, Lizaso, Telleria, Amaia Telletxea eta Peñagarikano.

## Gastronomia

### GASNA TARTA

#### Osagaiak

#### 4 lagunendako:

24galleta, kuxara bat margarina, 400 gr. gasna freskoa, 100 gr. azukre erraustua, yogur naturala, 3 arraultze gorringo, limoi azala xehatua, limoi zumo kuxara bat, 3 xuringo eta mahats zimurren eskukada bat.



Felisa IRUNGARAIK emana MENDIALDE - AMAIUR

Galletak ongi xehetu eta margarina gehituz masa egin

eta tartera batean paratu. Bertze osagarria, zuringoa ezik, ongi nahasi. Gero zuringoa bota eta dena tarteran paratu. Mahatsak gehitu. 4 minutuz 180 °tan labean sartu.

4 kuxara mermelada eta limoi erdi baten zumoa kazo baten berotu su fuertean. Irakiten hasten denean, tartaren gainetik paratu. Hozten utzi eta serbitu.

## Baserriko feria

### ► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 3.500 pzta. **Zerri gizona** (95-100): 136 pzta/kilo **Zerramak**: 75 pzta./kilo bizirik.

### ► BEHIKIA

•Aretze gizenak:  
**Idixkoak**: Pzta/kg. Kanal Extra.....630  
1.koa.....600  
2.koa.....580

**Urruxak**: Pzta/Kg. Kanal Extra.....645  
1.koa.....615  
2.koa.....595  
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

### •Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 430 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 460 Pzta /Kg. Kanal.

### •Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

**Nabarrak**: urruxak 25.000 artean eta idixkoak 35.000 Pzta.

**Mestizoak**: urruxak 38.000 eta idixkoak 50.000 Pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa

## EKAITZA OSTATUA

Goizeko 10etan irekia astelehenerik ortziralerara

Altzate - BERA

## SAROBEn okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

## TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91



## SANTAMARIA

### Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan Eguneko menua eta karta Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 DONEZTEBE



### Juliana Mutuberria

Xorroxingo berriemale Zubietan

- ▶ **Zubietarra ala 'ijittoa'?** Biak, horren fama dugu eta.
- ▶ **Etxekoandrea ala Xorroxingo korrespontsala?** Xorroxingo korrespontsala erran beharko dugu.
- ▶ **Dantza sueltoan ala 'agarrao'?** 'Agarrao'.
- ▶ **Amets bat?** Loteria tokatzea.
- ▶ **Zer notizi gustatuko litzaizuke irratiz ematea?** Herriko gertaera polit bat, txarrikan ez zait gustatzen.
- ▶ **Gorritzen zara noizbait?** Gauza graberik ez bada ez naiz lotsatzen.
- ▶ **Zubietako inauteriak ala bestak?** Inotik doble nahiago.
- ▶ **Zein da pertsona baten gehien apreziatzen duzuna?** Ona izatea.
- ▶ **Eta gustatzen ez zaizuna?** Faltsa izatea.
- ▶ **Irratia aditu ala TB ikusi?** Xorroxin aditu egun guztian.
- ▶ **Gosaltzeko, kafesnea ala arraultze prexituak?** Kafesnea, ogi motela, mermelada eta mantekillakin.

### La madre muerta (Hildako ama)

Juanma Bajo Ulloa  
Euskadi-1993

'La madre muerta' estreinatutako berria den filmeak istorioak irudiekin kontaktzeko gaitasun gehien duten zinegileen artean kokatzen du Juanma Bajo Ulloa gasteiztarra.

Zenbait sekuentzian, pelikularen erdian txaloka hasteko gogoasartzen da. Estatuko zinearen 'enfant terrible' bezala ezagutzen den zuzendari honek izugarritziko aintzina pausua eman du 'Alas de Mariposa' lehen filmetik, batez



Karra Elejalde, Lio eta Ana Alvarez, filme honetako aktore nagusiak

ere zineak duen adierazteko baliabideen dominioan. Honen adierazpen garbiena, hasierako sekuentzian, Ismael eta Maite pertsonaien aurkezpenean dago.

Guzti honi, aktoreen lan bikaina (Karra Elejalde gaur

egungo aktore onenetakoa da), musika eta argazkiaren goi mailako kalitatea eta zenbait generotara egiten duen ateralditxoak gehituz gero, pelikula on baten aintzinean gaudela erranzakegu, dudik gabe.

Baino zer kontatzen du pelikularak? Istorio hagitz sentimentalak da, haurren ipuinen munduan sartzeko modukoa, gaixtoak eta onak, umezurtz eta ogroak...

MARIANO



## LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Zurezko zoletan nahi duzuna

BERA ☎ 630735  
IRUN ☎ (943) 622305



## MALDAERREKA S.A.

### «La Suiza»

Aseguro  
mota  
guziak

Bittiria karrika - Tfnoa: 637404- LESAKA

## ETXEGARAI BIDEO KLUBA

Telebista eta Bideoak  
Antena kolektiboak eta  
banakakoak  
Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

## LEGARRA

- PAPERTEGIA • TABAKOAK •
- LIBURUAK • OPARIAK •

### ZERBITZU BERRIAK

- ☎ Fax Publikoa
  - ☎ Enkuadernazioak
  - ☎ Inprenta lanak • Fotokopiak
  - ☎ EGUNKARI hauek SALGAI
- Diario Vasco, Diario de Navarra,  
Navarra Hoy, El Mundo, As, Deia,  
Diario 16, Egin, Egunkaria, Marca,  
El País

Legarra 9, ☎ 637030 - LESAKA

## ‘Malerreka mugitu’

Malerreka mugitu nahi duten guziek zerbitzu, azpiegiturak edo kultur arloetan lan egiteko gogorik izanez gero, baduzue aukera. Abenduaren 16an arratseko 8,30etan Doneztebeko euskaltegian eginen da bilera, gai hauek landu asmoz.

## Guardiako farmaziak

Botikarioen Elkargo Ofizialaren aginduz, abenduko guardiak aste osokoak izanen dira, eta ez orain arte egiten zen modura. Beraz, aste osoan zona bakoitzean farmazia bat egonen da guardian.

Dena dela norbaitek dudaren baldin badu jakiteko zein farmazia dauden guardian, telefono 227718 telefonora dei dezake eta bertan argibideak emanen dizkiote.

## Bortzirietako feriak urtetik urtera jendetsuagoak

Guztira 57azienda presentatu ziren lehiaketara

Azaroaren 25ean ospatu ziren Lesakan Bortzirietako feriak, 1499az geroztik ospatzen den besta berexia. Aurten sekula baino jende gehiago hurbildu zen eta aunitz izan ziren bere azienak herrira eraman zituzten baserritarrak, guztira 57abere egon bait ziren ikusgai.

Lehiaketari dagokionez, zaltaberean 35zaldikoren artean Urdinbaitako Jose M<sup>a</sup> Anduezak eraman zuen lehen saria. Bigarrena eta hirugarrena Jose Antonio Anduezak.

Betabereetan 20azienda presentatu ziren eta holandesa arrazakoe-tan Biurgaraiko Salvador Goiak eskuratu zuen sari nagusia. Bere gibeltik, Makukobordako Luis Olaetxea eta Angel M<sup>a</sup> Altzugarai klasifika-



tu ziren. Suizetan berriz, Gillenbordako Gabriel Altzugarai eraman zituen lehen sariko 30.000 pezetak. Bigarren saria eta hirugarrena Makukobordako Luis Olaetxeak jaso zituen.

Haragitako behietan Berreuko Juan Antonio Prietok lortu zuen lehen saria. Bigarrena Ierrenbordako Frantzisko Ubi-riak eta hirugarrena Be-

reuko Juan Antonio Prietok. Hobekien aurkeztutako azienari emandako plaka berriz, Biurgaraira joan zen.

Aharetan azkenik, presentatutako 2buruen artean, lehen saria Telleriko Jabier Oiartzabalentzat izan zen eta bigarrena, berriz, Gillenbordako Gabriel Altzugarairi egokitu zitzaion

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

### LESAKA:

• Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.  
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

### IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40  
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitortpenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☛ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



## JULIO NIETO DEFENDATUZ

Azaroaren 18an, "Irakurleak mintzo" delako horretan 'Aresoko herritar' baten eskutitza argitaratu zen, bertan nere izena eta nik egingako zerbait aipatzen da.

Beharrezkoa da gauzak argitzea, goitik beheraino gezurra baita hor esaten dena eta familia baten izena oinperatua gertatzen da. Aresoko elizetxea eta han alogatua dagoen familiak da gaia. Horra nola diren gauzak:

1989ko abenduaren azkenean etxea libre geratu zen, orduarte zeuden maisterrak joan zirelako.

Garai hartan ni nintzen Aresoko parrokiako arduradun. Julio Nietok eta beste familia batek eskatu zidaten etxe hori.

1990ko urtarrilaren 21an Parrokiko Kontseilua bildu eta gaia eztabaidatu ondoren Julio Nietori ematea erabaki zen. Parrokiaren beharretarako gela bat erreserbatzea ere erabaki zen eta ordaindu behar zuen errenta, hilaletako 10.000 pzta. Kontrata izenpetu eta gaur arte baldintza zorrotz horiekin segitzen dute gauzak. Eta Aresoko parrokiak duen diru sarrearrak garrantzitsuena Julio Nietok ordaintzen duen errenta da, eta ez alderantziz es-

kutitz horretan esaten den bezala. Horra zein gezur borobilak diren 'Aresoko herritar' esaten den horrek esaten dituenak.

Berarekin hitz egin dut eta esan dit herrian dabilzan zurumuruak eta berriketak bildu besterik ez duela egin. Eta hemen ikusten dut *ttipi-ttapa*, aldizkari maitearen akatsa: nola onar dezake, gehiagorik gabe, horrelako gauza bat? Bide hortatik nora goaz? Gure herri txiki guztietako gorroto, enbidi, gezur eta kalumni guztiak plazartzera akaso? Gero gauzak ezin garbituz honela ibiltzeko?

Eta kalumniaz eta gezurrez ari naizenez,

zuzenbidezkoa Julio Nietoren fama oinperatua defendatzea. Hiru umeen gurasoa da eta igeltseroa. Ni naiz testigu: Leitzako parrokiari inork egin nahi ez zituen lan gogorrenak eta zikinak berak egin bait ditu eta ez bestek baino jornal handiagoa eskatuz. Hor esaten den alper baten ez ditu horrelako lanak egiten.

Agian gauzak argi geratuko al dira honekin eta mingain gaiztoak ixildu eta gorroto txarrak itzali ere bai, hori baita azpitik dabilen jokoa.

Juan Bautista Irazoki,  
Leitzako apezka eta  
Plácido Erdozain  
Aresoko apaiza

## ARESOARREI

Aitortu beharrean aurkitzen naiz 1993.-ko azaroaren 18ko *ttipi-ttapa* aldizkariaren 122. zenbakian nik neronek izenpetutako idazkian esandakoa zuzendu egin nahi dudala.

Jakin dudanez, ez da inolaz ere egia Aresoko Elizetxean bizi diren jendeak elizaren kontu korrontetik bizi direnik.

Ez da ere egia inolaz ere, familia horren buruak lanik ez duela egiten edo lan bila ez dela saiatzen. Beraiek irabazten dutenetik bizi dira.

Javier Caballero Otaegi

## MOLINERO PINTURAK



Etxe barneko hezetan eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen araberako prezioetan.

Eztegara 19 - ☎ 63 02 40 BERA

## OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



ERRO  
BIDAIAK

BIDAI  
AGENTZIA  
G.A.T. 2.015

✕ HERRIAK  
✕ MENDIAK  
✕ TURISMOA  
✕ TREKING eta  
BIDAI ALTERNATIBOAK

ADUANZA KALEA, 5

☎ 943 - 615177

☎ 943 - 619489

FAX 943 - 619517

20.300 IRUEN



## Endarlatsako kuartela behin betikoz itxi dute

Bere orubearen zati bat zubi berria egiteko erabiliko da

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Endarlatsan kuartela aspalditik ezagutu bada ere, erreka bazterreko hiru etxe horien kontua berriagoa da, 1907az geroztikoa. Gaur egun Espainiako Barne Ministeriotik inolako operatibitatearik ikusten ez diotenez, ixtea erabaki dute.

### IX. Bertso Paper Lehiaketaren sariak

Hamalau urte artekoetan 1. go saria Julen Zelaietarendako izan da, eta bigarrena Eneritz Mitxelenaentzat, biak Berakoak. Hiru aipamen berezi ere eman dira, Lesakako Ekhiñe Etxepeteleku, Xabier Terreros eta Erika Lagomarentzat.

Hamasei urtetik goitikoetan, bertzalde, 1. go saria Lesakako Estitxu Fernandezentzat, eta bigarren saria Berako Rikardo Abrilrentzat.



N-121-A errepidea moldatzeko proiektuaren barnean, Endarlatsako zubi berria egiteko erabiliko da orube horren zati bat.

### Jubilatuek sarreraren erdia ordainduko dute udalak antolatutako ikuskizunetan

Azken udalbatzarrean HBk aurkeztutako mozio bat eztabaidatu zen. Mozio horretan, jubilatuek udalak antolatutako kultur ikuskizunetan, sarre-  
rak balio lezakeenaren %30a ordaintzea proposatu zen. Afera eztabaidatu ondotik eta udalba-

tza osoaren konformidaz, azkenean sarreraren erdia kobratzea deliberatu zen.

Erabaki honekin, bertze zenbait herritan egin duten modura, zera bilatzen da: dirua ez dadila traba izan jubilatuek aktibitate horiek ikustera etortzeko.

### ttipi-flash

**Txotxongilo** bizien erakusketa dago ikusgai Kultur Etxean abenduaren 3tik 5era, arratsaldeko 5etatik 9etara. Erakusketa 'Bai Teatro'-ren laguntzaz antolatu da.

**Santa Ceciliaren** ospakizunen barnean, abenduaren 4ean Angel Barricarte tenorearen emanaldia eskeiniko da Kultur Etxean.

**Kultur Etxeko** pareta batek itxura berria hartu du azkeneko aste honetan. Bertan, Toki Onako ikasleek joan den ikasturte bukaeran egin zuten zeramikazko armarrizarrara paratu baitu udalak.

**Izokiak Nabasturengo** presatik igaiteko eskalak eginen dira. Gauza bere eginen dute Bidasoako bertze presetan.

**BOAN TAILERRA**



KOTXE BERRIEN

ERAKUSKETA ETA SALMENTA

Herriko Etxeko Plaza - BERA

*Errekalde ostatua*

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA



**KIROLAK ZELA**

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98

**BERA**



© 631076 • BERA

**ZIZKA OSTATUA**

Martxa eta mozkor saltsa

Altzate 28 - BERA



Legia 11 - 63 06 64 BERA

LESAKA

Abendu hasierako 'oporraldia' probextuz ekitaldiz betetako KulturAstea antolatu da

AITOR AROZENA

Hilaren 3an (ortzirala) arratsaldez akordeoi orkestaren kalejira izanen da eta gauez rock kontzertua Arranon eta 'Velada flamenkoa' Saskin.

Larunbat arratsaldean peñen berendua. Bertan, Koxkontako sagardoa debalde banatuko da. Arratsean, poteoa trikiritxakin. Ondotik herri afaria bertsolariekin Arranon, eta ikastolak antolatutako rock kontzertua frontoian Ametsgaizto, Sutagar eta Etsaiak taldeekin.

Igande eguerdian txistularien kontzertua. Arratsaldean Beti Gazte eta Gure Txokoan arteko liga partidoa. Arratsean bertsolariak Arranon eta herri kirol erakustaldia

Astelehenean, hilak 6, eguerdian haurrentzako eskulanak plazan. Arratsaldean pilota partidoak eta



Santa Cecilia eguna ospatuz, musikari taldeak kalejiran ibili ziren Argazkia:AITOR

gauez rocka Atxaspin 'Orgasmix Tothpics' taldearekin eta blues Koxkilan 'Mal Temple' taldearekin.

Hilaren 7an, gauez, 'Minxoriak' taldearen azken kontzertua. Hilaren 8an azkenik, diana Ezpe lur dultzaineroekin eta eguerdian Donibaneko erraldoien konpartsa.

Zenbait elkartetan erakusketak izanen dira egun hauetan.

ttipi-flash

- Arkupe pilotazaleen elkarteak 228.824 pezetako laguntza hartuko du CANetik estatuko bigarren mailako esku txapelketan parte hartzen ari dela eta.
- Manolo Arozenak Euskalerriko Bertsolari txapelketaren finalerdietan parte hartuko du, lehen kanporaketa pasatu ondotik. Saioak 5 eta 8an.
- Beti Gazte elkartearen egin beharreko argazki erakusketa hilaren erdira gibelu da.

'Udazken goxua' Matxinbeltzanean

'Udazken goxua' izenarekin hainbat kultur ekitaldi antolatu dira Matxinbeltzenea euskal txokoan. Orain arte egingakoan artean, euskarazko pornografia Vicent Gil de Paulesen eskutik eta euskal musikari buruzko Xabier Muguruzaren ikuspegia, saxoaren laguntzaz.

Hemendik aintzinerara, abenduaren 2an, gaueko 10,30etan Noise Hole taldearekin rock kontzertua izanen da. Hilaren 16an, 9etan, txiste afaria Guillermo Seguiolarekin. Abenduaren 22an azkenik, gaztain jateaz eta trikiritxaz goxatzeko aukera izanen da 7,30etan.

**EROSLE**  
LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena  
zugandik  
hurbilago

Bittiria 67 - Tfnoa:637264

**SASKI**  
**OSTATUA**  
LESAKA

**BEREAU**  
**jatetxea**

Lesakako Bidegurutzean  
Tfnoa: 637382 - LESAKA

LORA DENDA  
**TXIRULA**  
Bittiria LESAKA  
627542  
bitxikeriak • opariak • eskulangintza



**KOXKILA**  
**OSTATUA**

Larunbatetan  
mus txapelketak  
sari ederrekin

Zarandia 4 - LESAKA

## Herria edertzeko proiektuak kezka sortu du

Chocarro arkitektuaren estiloa desagokitzat jotzen da

PELLO eta ALBERTO

Herria apaindu eta edertzeko proiektua Chocarro arkitektuaren esku uzteak kezkatu egin ditu herritar batzuk. Zeragatik alegia, arkitektu honen burutik herrian egindako zenbait obra ez dagokiola herriko etxegintza estiloari batetik eta bertzetik, herriko jendeari obra egite-rakoan eskatzen zaiona berak ez duela betetzen. Hori dela eta, beldur dira ez ote duen proiektu ego-kirik sortuko.

### Herriko ostatua hartzeko baldintzak

Herriko ostatu eta jate-txea hartzeko epea bukatu denean, batek bakarrik egin



Herriko etxegintzaren estiloa zein den ezkerreko argazkian ageri da. Halere, hainbat herritarren ustez, arkitektu honen burutik herrian egindako zenbait obra ez dira estilo horretara egokitzen.



du eskeintza, baina honek ere baldintza batzuk aldatzea eskatu du. Hori ikusirik, bertze epea ireki du Udalak ostatua hartzeko eskeintzak presenta ditzaten, eta baldintzak nabar-menki hobetu ditu. Bortz urterako emanen zaio osta-

tua, bertze bortz urtez luzatzen ahalko dena. Horrez gain, hileko errentaren zenbatekoa bakoitzak erabakiko du eskeintza egite-rakoan.

☐ **266 Hektareatan** sartuko du landarea Nafarroako Gobernuak negu

honetan eta hurrengoan eta 30 milioi pezeta kostako da. Bertako haritza, pinua eta 3 hektareatan eltzaur eta gereziartuko da. Zimeldi eta Unani aldean eginen den gastua 8 milioi-koa da, bertze 22 milioiak berriz, ondoko neguan.

XATURETXEA



JATETXEA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

EKAITZA CAFE

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia



Tfa: 948 - 627547  
Plaza Berria 13 - LESAKA

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat pentsurik egokiena  
Tfnoa: 63 52 14  
ETXALAR

IRUBIDE

OSTATUA  
ERRETEGIA

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

GOYA

JOSTAILUAK  
JANTZIGINTZA  
OPARIAK

BURDIN TRESNERIA

Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA



KATTU


OSTATUA  
JATETXEA

- Karta  
- Eguneko menua



Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA

ARRANO



OSTATUA

Legarra - LESAKA

IGANTZI

**Kultur Egunak abenduaren lehen egunetan izanen dira**

Aspaldiko partez aurten euskara ikastaroak Igantzin

OSKAR TXOPERENA

Abenduaren hasierako aste ondar luzea (3a, 4a eta 5a) aprobetxatuz, zenbait kultur ekintza izanen dira herrian. Gauza ezberdinak daude programaren barrenean, baina orekatuak, kultur eremu aunitz ukitzen baitira. Hauxek ditugu aipagarrienak: 4ean, arratsaldeko 4etan, herri kirol saioa (aizkora, arpana, txingak, fardo altxatzea, gurdia, etabar...), Berako dantza taldearen saioa igande eguerdian, igandean ere Goizuetako mendizaleei eginen zaien harrera trikitilariak girotuko duten bazkarian, etabar. Bertze zenbait gauza ere antolatu



*Dagoeneko Mexiko aldean ditugu azaroaren 20an ezkondu ziren Josetxo eta Ana. Igantziko Bentan etxea egiteko asmoa baldin badute ere, momentuan Lesakan bizi behar omen dute. Ea Batista eta Genovevaren marka gainditzen duten, Urrezko Ezteiak bete baitzituzten hauek ere joan den urtean.*

nahian omen dabilta gazteak. Ikusi esku programa.

**Euskara** ikastaroak baditugu aurten. 7 gazte biltzen dira Itziarrekin al-

fabetatzera, hau da, euskaraz behar bezala idazten ikastera, guztiek ongi baitakite solasten. Ez da berri txarra.

**Zerririk** hil nahi

duenak, jakin dezala albaiteroek, abenduan eta hilteltzan herrikoetxean biltuko dituztela puxkak astearte eta ortzegunetan 12etan.

GRUPO  ZURICH

**ASEGURO OROKORRAK**

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

**ZALAIN JATETXEA**

**Eguneko menua eta karta**

**Boda eta banketeak ematen dira**

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 **BERA**

**KOXXKONTA**



Sagardoa  
botiletan  
salgai

Deitu  
erreserbak  
egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - **LESAKA**

**ORDOKI**

**ALTZARIAK**

**Estilo guztietako mobleak**

**ERAKUSKETAK:**

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

**SALMENTAK:** Plaza Zaharra 27

Tfnoa: 637034 - **LESAKA**

Larunbat  
arratsaldetan  
zabalik

## Espartzinak egiten hasi da emakume talde bat

Amaia Telletxeak maila ederra erakutsi du Euskalerriko bertsolari txapelketan

MARTA ITURRIA

Espartzinak eskuz egiten hasi da Arantzako emakume talde koxkor bat. Hasiera batean hamabortz bat neska biltzen omen ziren Doloresekin espartzin egiten ikasteko. Halere, orain bakoitza bere etxean hasi da lana bakarka egiten, ustez nahikoa ikasi ondotik. Hagitz kontent ez omen daude, ez baita nahiko irabazten. Lan aunitz eta diru gutti.

### IV. Egin mus txapelketa

Hamar bat bikote bildu ziren Aterpe erretegian jokatzen egin mus txapelketaren kanporaketan.



Amaia Telletxeak gibelean utzi ditu Mañukorta, Jon Maia edo Telleria bezalako bertsolari ospetsuak  
Arg.: Artxiboa

Irabazleak Paco Leitza eta Jacinto Alzuri izan ziren. Bigarrenak berriz, Rafa Errandonea eta Bonifacio Oskoz. Beraien saria hartu zuten segituan: Aterpen

bertan afaria. Txapelketa segitzeko hurrengo astean Iruñera joan ziren. Paco eta Jacintoren lehen kontrarioak ez omen ziren presentatu eta bigarren parti-

doan berriz, galdu egin zuten. Bonifacio eta Camino (semearen partez ama joan baitzen) lehen partida galdu zuten.

### Amaia bikain txapelketa nagusian

Amaia Telletxeak Euskalerriko bertsolari txapelketa nagusian parte hartu du aurten. Berrogei bertsolaritik hemezortzigarrena gelditu da 646 punturekin. Finalerditara pasatzeko hiru puntu eskax izan ditu. Berak erran digunez, "saioarekin ez hainbertze baina lortutako puntuazioarekin hagitz kontent nago, parte hartzen dudana lehen aldia izateko postu ona baita".

## TXOKOA OSTATUA

- X Eguneko menua
- X Asteburutan, kaxuelak eta karta
- X Gosari, bazkari eta afariak aintzinetik eskatuta
- X Pintxoen espezialduak    X Gazte giroa

Tfnoa: 630286, Alzate • BERA



GAZTANDEGIA  
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda  
Tfnoa: 45 08 62  
SUNBILLA



### BULEGORAKO MOBLEAK ETA MAKINAK

Soroxarta Pabeloiak 3-A, Anaka Auzoa

Tfnoa: 943 - 61 02 22 - 61 44 34

Fax. 943 - 61 44 34

20300 IRUN

- Moble ekonomikoenetatik hasita 'standing' altuenekoak bitarte
- Fotokopiagailuak, erregistratzaileak, telefax eta bulegoko edozein makina.
- Gure eskeintza **sofa eta etxebizitzarako konplementoekin** zabaltzen dugu.
- Erakusketa zabala. Eskariak abudo serbitzen dira.
- Parkin pribatua daukagu.

SUNBILLA

# Istripu larriak izan dira azken aste hauetan

Bertzalde, gimnasia eta sukaldaritza ikastaroak hasiak dira

IXABEL eta JOSUNE


Orain dela hiru aste bi istripu larri gertatu ziren. Alde batetik, kotxe batek andre bat jo zuen errepide-tik pasatzen ari zenean. Bertze istripua albinteari gertatu zitzaion, frontoia- ren ondoko zuhaitzen adar- rakk mozten ari zela erori baitzen. Nahiz eta biak, poliki-poliki sendatzen ari diren eta hobekiago dau- den, denbora luzerako zauriak dituzte. Ea laister sendatzen diren.

## Ikastaroak hasi dira

Sukaldaritza eta gim- nasia ikastaroei hasiera eman zaie berriki. Ikastaro hauek asteartetan eta or- tzegunetan izaten dira.

*Sukaldaritza ikastaroak gogoz hasi dira ikasten, astearte eta ortzegunero, 5etatik 7etara*

Arg: IXABEL



Gimnasia klaseak arratsaldeko 3,30etatik 4,30etara eta sukaldaritzakoak berriz, 5etatik 7etara.

□ Egin mus txapelketa jokatu zen lehenbiziko al-

diz Herriko Etxeko ostatu- an. Txapelketa honetan 16 bikotek parte hartu zu- ten eta sailkapena honela gelditu zen: 1. Nieves eta Ixabel, 2. Joxemi eta Aitor, 3. J. Bizente eta Pako Al-

zuri eta 4. Alejo eta Agus- tin. Finalistak Iruñera joan ziren herrialdeko txape- lketa jokatzera, baina le- hendabiziko partidari gal- du zuten bi bikoteek. Hu- rrengo urtean izanen da.



## AMEZTIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan  
Tf: 450028 - DONEZTEBE

*MariCruz*  
LENTZERIA  
Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE



Amezitia karrika z/g  
Tf. 450163 • DONEZTEBE

**Lurrindenda  
Oparidenda  
Apaindegiak**

### AZKEN NOBEDADEAK:

- LANCASTERen Skin Therapy: Larru-azaleko kosmetikan azken orduko nobedadea eta oxigenoaz baliatuz.
- Parfums JOOP!: Alemanian gehien saltzen dena.
- INTEGRAren kosmetika: prezio eta kalitatearen arteko erlaziorik hoberena.
- Udazken eta negurako azken kolekzioak pañuelo, boltso, bitxitegi, estalki, euritako... eta sasoi honetako LANCASTERen kolore berriak.

### APAINDEGIAN:

- Tratamendu berriak (zelulitis, barizak...) Bouchet doktorearekin batera.
- Hileak kentzeko sistema elektriko berria.

*Erosketa bakoitzeko opari bat dugu zuretzat!!*

## Bi udal ordenantza onartu berri dira

Zirkulazioa eta karrika salmentari buruzkoak

TXEMA ALDABE

Azken udal batzarrean bi ordenantza garrantzitsu onartu ziren. Alde batetik, Zirkulaziorako ordenantzak, herriko aparkamenduen arazoa arintzeko eta auniztan sortzen diren saltsak, ahal den neurrian, konpontzeko. Bertzalde, 'venta ambulante' edo karrika salmenta dela eta berze ordenantza onartu zen. Honekin, kanpotik heldu diren saltzaileak eta eskeintzen dituzten prezioak pixko bat erregulatzeko asmoa dago.

### Eguberrietarako prestatzen

Eguberrietako karrika iluminazioa berrituko da aurtengoan. Lehen bezain errex fundituko ez diren bonbillak hartu nahi dira. Aldaketak egonen dira eta Parrokia karrikan zenbait figura sartuko dituzte.



JOXEMANUEL

'Cederna-Garalurrek' Nafarroako iparralderako egina duen plangintza azaldu zuen azaroaren 2an, inguruko alkateen aintzinean

### Patxi Mindegia, bigarren mailako aizkolarien txapeladun

Feria egunean egin ziren Doneztebeko frontoian Nafarroako bigarren mailako aizkolaria eta arpanlariaren txapelketak.

Aizkoran, Patxi Mindegia da txapeladun berria, enbor bateko eta bi minutu baino gehiagoko alde ateri baitzion bigarrena izan zen Nartxi Saralegi

leitzarrari. Ondotik Daniel Vicente, Jose Luis Telletxea eta Martin Jaunsaras aizkolaria sailkatu ziren. Honela, lehen eta bigarren mailako txapelak etxe berean izanen dira aurten.


Arpanlari txapelketa berriz, emozioz betetakoa izan zen, sei segundoko alde bertzerik ez baitzen

### ttipi-flash

**Musika Patronatoa** egitea erabaki du udalak. Udala bera, irakasleak, ikasleak eta gurasoak sartuko lirakeke patronatoan, musika eskolaren funtzionamendu egoki bat bilatu nahiean

**Lapurretak** berriz ere: Banco Centraleko bulegoan atrako bat egin zuten pistola eta guzti, baino oraingoan bi atrakataileak harrapatu zituzten. Donezteben bertan, iturendar bati kotxe berri berria ebatsi zioten.

izan lehenbiziko eta hirugarren bikotearen artean. Ultzamako Larraioz eta Morrondo izan ziren irabazle, bigarrenak Azpirotzeko Zabalo eta Lasarte eta hirugarrenak, Berriozarko Oses eta Goldarazena. Azken postua Irurtzungo bikotearentzat izan zen.



TELLETXEA

MOBLEAK

### Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten dtugu. Fabrikanteak gara.
- Haritz, gereziondo, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak.
- Tresillo eta tapizerietan aukera zabala
- Ordaintzeko errextasunak eta zure erosketengatik opari ona eramanen duzu

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - **DONEZTEBE**

URROTZ

Nekazariak luberriak ateratzen hasi dira

Udal plenoak, osasun arloko langileak euskaldunak izatea eskatu zuen

TXEMA URROTZ

Ez da azken hontan gauza gehiegirik gertatu Urrotzen baina zenbait aferatan nabari da nolabaiteko mugimendua.

Nekazariak diren aunitzek belagi berriak egin dituzte eta obrak egiteko ere prest daudenak badira. Bertze aldetik ehiztariak ere fuerte ari dira eta Huesca aldetik basurdeak ekarri omen dituzte; halere, jateko jendea eskax omen da eta haragia gordetzeko arazoak daude.

Udal plenoa

Azaroaren hasieran plenoa egin zuen udalak eta bertan hauek izan ziren hartutako erabaki batzuk:

Zona osoan ETB eta kate pribatuak ikusi ahal izateko beharrezko obrak egitea eskatu zaio Nafarroako Gobernuari.



Euskara zerbitzuak proposaturik Osasunbidean euskararen normalkuntzaren aldeko kanpaina dela eta, mozioa onartu zen. Bertan, Nafarroako Gobernuari osasun

arloko langile ez euskaldunik ez bidaltzea eskatu zitzaion, ez behinpin udal afektatuei galdetu gabe.

Bertze mozio batean, Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Ko-

munikazio sailari Baztan, Bidasoa eta Malerrekan ETB eta kate pribatuak hartu ahal izateko egin beharreko gestio eta obra guztiak egitea eskatu zitzaion.

BELARRA Kafetegia

Plater kombinatuak

Amezti 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE

Aurten Erregeek opari berexia ekarriko dizute...

ZURE OSASUNA ETA EDERTASUNAREN ZERBITZURA


Osasun fisikoa eta sikikoa tratamendu naturalekin



Bizkarrezurreko arazoak



Zelulitisa eta loditasunaren kontrako tratamendua



Jean Paul Bouchet Dokorea

☎ 45 07 08 • DONAMARIAKO BENTA



Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa

Etan orain, zure koloretako argazkiak ORDU BATEZ ERREBELATUAK ditugu

Tfnoa.: 58 01 55 • Santiago 40 • ELIZONDO



## Joaldunak Euskal Telebistan ateriko dira Gabon gauean

Datorren urte hasierako Kultur Egunak prestatzen hasia da jendea

IBAN ISASI

Eguberriak bertan direla, bistan da. Honela, azaroaren 14ean Euskal Telebistako kazetari batzuk grabaketa bat egin zuten Iturengo urtegi inguruan. Bertan, joaldunak joareak joka agertu ziren. Grabazio honen bertze zati batzuk estudioan grabatuak izan dira. Programa abenduaren 24ean emanen dute ETBko lehen kanalean, gaueko 11etan. Ordurako ETB-1 konponduko al dute... Animo lan hortan dabilizane.



Aurtengoan, olentzeroarekin batera Iturengo joaldunak izanen ditugu Eguberriak zoriontzen Euskal Telebistan

□ **Kultur egunen** torrak pizturik daude hurrengo urte hasieran ospa prestaketa hasi da eta mo-

daitezen ohitura bihurtzen ari diren Kultur Egun hauek. Hurrengo alean informazio gehiago emanen dugu.

### Aurtizko bestak

Giro onean akitu ziren urte honetan ere Aurtizko bestak. Larunbat gaua izan zen jendetsuena eta seguraski, azken urte hauetan bestetan egon den jende kopuru haundiena bildu zen. Rock jaialdiko taldeek majo jo zuten eta gainerako guztia espero bezala aterata zen. Ostatuko paziko zopak ere, eh Asun?

## ZUBIETA


## Udalak Itoizko urtegiko lanak geldiaraztea eskatu du

Lan honen egiazko helburuak garbi ez daudela uste du

AINHOA MUTUBERRIA

Zubietako Udalak, azken batzarrean hartutako erabakiaren arabera, "Itoizko urtegiaren benetazko helburuak garbi ez daudela ikusita eta informatuak izateko dugun eskubidea kontutan hartuz" urtegiko lanak geldiaraztea eskatu dio Nafarroako Gobernuari.

Udalaren ustez, behar beharrezkoa da "arrazoizko zalantza horiek argitzeko, Itoizko urtegiaren aurkako koordinakundeak eskatutako eztabaida pu-



blikoari baiezkua ematea eta lehenbaitlehen gauaztea aipatutako eztabaida

hori".

Erran bezala, eztabaida gauzatu bitartean urtegiko

### ttipi-flash

- **Elutsa** elkarteak, indarrez ari da martxan jartzten eta abenduaren 5erako eskurtsioa antolatu du Itoitzera.
- **Fermineneko** Jesus eta Josepa, seme eta suiarekin batera, Ameriketatik ailegatzeko puntuan omen daude.

lanak gelditzea, 'egitezko' politikari bukaera emanez eskatu du Udalak.

GOIZUETA

Ixkibin zubi berria egiten hasi dira

Turismorako azpiegiturak prestatzen ari dira azken hilabete hauetan

ESTEBAN AROZENA

Gure herriaren etorkizuna turismoan dagoela esaten dutenei arrazoia eman beharrean aurkituko dira batzuren batzuk, horretarako azpiegiturak prestatzeari gogor ekin bait zaio hilabeteotan. Honen adibide bat, Ixkibi izeneko parajea egiten hasi berria den zubi dugu. 31 milioi pasatxo kostako da obra hau, eta errekararen bestaldean dagoen zelai ederra errepidearekin lotzea da bere helburua, lehen mailako camping pribatu bategiteko asmoa baita bertan. Esan behar da, 21 milioi pzetako dirulaguntza jasoko duela proiektu honek, 18 milioi Nafarroako Gobernuatik eta 3 milioi Euro-



Mutilen futbito taldea da azken aldi honetan modan dagoena, baina neskek ere badute beraien txapelketa. Duela hiru aste hasi zen aurtengo edizioa eta lau talde dira partaide.



Miguel Salaberria eta Alberto Etxeberria suertatu ziren garaile IV. Egin mus txapelketako Goizuetako kanporaketan.

pako Komunitateak emanak.

Kontutan izan Telleriko kanpalekua ere haunditzen ari direla, guztiz legeztatzen eta nekazal-turismo sarean sartzeko.

Alkainzurian auzoko baseritarrei ez zaie gaizki etorri telebista errepetido-reak bertan kokatuak egoteak.

Horri esker ederki orni-gonatutako bidea izanen


dute hemendik aurrera, dagoeneko bukatu baita Azpizroz-Saralegi enpresaren esku zegoen lan hau. Obra hau egitea 36,5 milioi pezetara kostatzen da zubiaren administrazioari.

ARESO

Eguraldiaren gora-beherak aztertzekeo tresneria jarria du Gereñonean Lurraren Institutuak

JUANA M<sup>o</sup> SAIZAR

Lurraren Institutuak eguraldia estudiatzeko tresna batzuk jarriak ditu duela 6 bat urte Gereñonen. Bertako etxeoandreak egunean hiru aldiz ikuskatzen ditu, eta grafiko batzuren bitartez hainbat datu bildu: haizearen norabidea, tenperaturak eta hezetasuna, bisibilitatea, egindako euri litroak edo elurraren altura... Astele-



Gereñoneko etxeo andrea bere seme-alabekin.

heneko grafiko berriak hasten ditu eta hilean behin Iru-

ñerabidali. Autobiaren obra hasi denetik, hilero grafika

ttipi-flash

- Gripearen txertoa 48 lagunek hartu dute aurten.
- Eskolako umeek aldizkari bat egin dute etxez etxe kontu zaharrak bildu ondotik.
- Karretera moldatzeko laguntza 49,3 milioioi izanen da.

hauen fotokopia bat ere eskatzen diote.

## Udalak euskara teknikari bat kontratatuko du

Abenduaren 9ko eguerdia baino lehen aurkeztu behar dira eskariak

JOSEBA AZPIROZ

Leitzako Udalak aldi bateko Euskara Teknikari bat kontratatzeko oposizio lehiaketaren deialdia egin du. Printzipioz Leitzaldeko azpizonaldean (Arano, Areso, Goizueta eta Leitzan) arituko da lanean urte batez, kontratua hiru urterarte luzagarria izanen bada ere. Aurkezteko, erdi mailako titulua eta EGA edo pareko titulua behar dira eta epea abenduaren 9ko eguerdiko 12etan bukatzen da.

### Independentziaren aldeko eguna

Euskal Herriaren independentziaren aldeko eguna ospatuko du Leitzan Herri Batasunak, abenduaren 3an. Egitaraua honako hau izanen da: 11etan zarpantzarrik, gaiteroak, erraldoiak, dantzariak, txistulariak, txaranga, trikitixak, etabar ibiliko dira auzoz auzo; ordu batean manifestazioa aterako da Huarte Gotzaiaren plazatik, 1,30etan ekitaldi politikoa. Bertan Patxi Zabaletak eta Behe-Nafarroako beste hizlari batek parte hartuko dute. Ordu bietan Herri Bazkaria pilo-



Arkupeak antolatutako pesta ederra bukatzeko, zer hobeago dantzaldi batzuk baino?

Argazkia: JOSEBA

### Zinea berriz ere martxan

Pelikulak ostiraleroko 10,30etan eta igandero 5etan eta 8etan emango dira. Gure esku dago zinearen etorkizuna. Joan eta pelikula on bat ikusiz ordu pare bat gustora pasatzea besterik ez dugu.

Hamabostaldi honetako pelikulak honako hauek izanen dira: Aben-

duaren 3an, 5etan eta 8etan, 'Mi novia es un extraterrestre'. Abenduaren 5ean, ordu beretan, 'El último gran héroe' eta abenduaren 10ean, 10,30etan eta abenduaren 12an 5etan eta 8etan 'Memorias de un hombre invisible'.

Guztien gustoa egiteko moduko pelikulak.

talekuan eta bazkal ondotik, goizeko taldeetaz gain ber-

tsolariak, joteroak, iparraldeko abeslariak...

### W ttipi-flash

- **Udala** 16.000 pezetako isun edo multak jartzen hasi da aparkatzea debeatua dauden kaleetan kotxea uzten dutenei (kamiotik plazatik doaien kalea eta zinema eta Elgoien 6 etxearen artekoa).
- **Lanbide Eskolako** ikasleek intsumisioaren aldeko greba egin zuten azaroaren 18an. Goizean klasera ailegatzean, delegatu bakoitzak bere gelak, gaia azaldu ondoren bozketa egin zen, 87 boto grebaren alde, 7 aurka eta 21 xuri. Ondotik asanblada egin zuten eta manifestazioa Eztebanea aalderaino. Han kamioan eseri eta kotxei pasatzea galerazi zieten Guardia Civilak joan arte.
- **'Ekin Euskarari'** erakusketa ikustera oso jende gutxi izan da eta pentsatu baino lehenago eraman zuten.
- **Kontzertua** izan genuen elizan azaroaren 21ean 'Asketa' abesbatza eta irungo abesbatzaren eskutik.

**GAZTELU ITURGINTZA**

**KALEFAKZIOA**

Elgoien 32 • Tfnoa: 510086 • LEITZA

**Aurten Erregeek opari berexia ekarriko dizute...**

**BAZTAN**

**AEK: 'ez diogu inongo trabarik jarri poliziari klasera etortzeko'**

Gertaera honi eman zaion trataeraz harrিতuta dago Baztango AEK

JMI eta JOSEBA IGARABIDE

Baztango AEKk gure erredakziora bidalitako ohar batean adierazten duenez, 'gertaera honi eman zaion trataerak eta gertatu zene-tik hilabete bat beranduago plazaratu izanak' harridura sortu du erakunde honetan. Zentzu horretan, Nafarroako Gobernuak dirulaguntza kentzeaz egindako mehatxua, 'kontua bere onetik ateratzea dela' pentsatzen du Baztango AEKk.

Gertaerari erreferentzia eginez, 'duela hilabete bateko gertakizuna da hauxe - dio oharrak - lehen urratseko ikastaldeko ikasleek, beren arteko kide bat polizia funtzionarioa zela jakin bezain laister, irakaslearen-gana zuzendu ziren beren egonezina eta aipatu ikaski-dearekin batera klasera joateko ez-prestakuntza agertuz'. Gauzak horrela, AEKk ikastaldeak erran-



Argazkia gan den urtekoa bada ere, aurtan, azaroaren 19an, Erratzuko emakumeek IV. Besta egin zuten Elkartean. Hirutanogei emakumetik goiti bildu ziren eta gizon bakarra, akordeonista.

dakoa jakinatazi zioenean poliziari, honek 'ya me lo suponía, si es así me voy' erantzunez alde egin omen zuen. AEKren irakaskuntz moldea talde dinamikan oinarritzen da, eta hortaz, talde komunikazio hori sortzea zerbaitek tratatzen badu, 'modurik egokienean konpontzen saiatzen gara'. Dena dela, 'AEKk ez dio inori euskara ikasteko eskubidea ukatu' dio oharrak.

**Arraiozko pilotalekua**

Arraiozko pilotaleku estalia egiten hasiko dira laister. Pilotalekua Elizaren parera baino goitiago ez gelditzeko, belagia zulatu behar dute eta nibela behititu.

**Pilota eskolak elkartuko**

Baztan eta Malerrekako pilota eskolak elkartzea erabaki dute.

**ttipi-flash**

- ❑ **Elizondoko** Giltxaurdi futbol-zelaia moldatzeko eta Anizko pilotalekua estaltzeko 8 milioi pezetako laguntza hartu da Diputazioetik; obra bakoitzendako launa milioi.
- ❑ **Otxandorena**, Erratzuko pilotariak, Kuban munduko txapelkun izandakoari irabazi dio club-arteko eskuz banako txapelketan.
- ❑ **Ornoz-Mugairiko** kontsulta berria egiteko 9.155.205 pztako laguntza emanen dio Diputazioak udalari. Obrak 'Telletxea Eraikun-tzak' egiten ditu
- ❑ **ETBk** fArraiozko Putxiri mendian errepetidorea paratuko du.
- ❑ **Amaiurko** zubia zabal-tzeko obrak bukatuak daude.



**JATETXEA**  
Tfnoa.: 580101  
Santiago 1  
ELIZONDO

**Galarza**

**MENDIALDE Jatetxea**



**Etxeko gasnak saltzen ditugu**  
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan  
**AMAIUR Tfnoa: 45 30 60**

**OSKORRI LIBURUDENDA**

Petrinea Tfnoa.: 592245  
ORONOTZ-MUGAIRI

**IPINGI**

ZATOZ ETA IKUSI  
Santiago 88, Tfnoa: 580939  
ELIZONDO

**ESKULANETARAKO MATERIALAK**  
**Negurako BEROKIAK eta ARROPA**



ERLOJU eta BITXI DENDA

**ARRIETA**

KIROL TROFEOAK  
Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



## Aurtengo kiwi-produkzioa iazkoa baino hobea izan da

Halaxe adierazi du Miguel Mindegia, 'Kiwi Baztan'eko gerenteak

JOSEBA IGARABIDE eta JMI

'Aurtengo kiwi-produkzioak joan den urtekoak baino kalitate hobea du'. Halaxe dio Miguel Mindegia, Kiwi Baztaneko gerenteak. Fruta haundiagoa eta berdina da aurtengoa. Bi arrazoi daude hortan lagundu dutenak; batetik polinizatzeke urte ona izan dela, eta bertetik, lorea eta fruta ere bakandu izana.

Honez gero komertzializatzen hasiak dira, batez ere Bilbo, Donostia eta Iruñean. Denda eta supermerkatu haundiei saltzen diete, kilo bakoitzeko 110 eta 180 pztatan. Merkatua estabilizatu omen dago, eta horrek, segurantzaz ematen du.

Miguel Mindegia:  
«Joan den urteko klienteak kontent gelditu ziren, eta aurtun, kliente berriak egiten hasiak gara»

ARTXIBOA



### Juan Meokik Iruritan duen txatar-biltegia berehala ixtea agindu du Nafarroako Gobernuak

Juan Meokik Iruritan duen txatar-biltegia legez kanpokoa dela eta, berehala ixtea agindu du Diputazioko Ingurugiro Departamentuak. Agindu betearazteko

Polizia Foralaren laguntza ere eskatu du, alde batetik txatar-biltegia itxi eta prezintatzeko, eta bertetik, berriz ere martxan jartzea galerazteko.

### W ttipi-flash

- Bertso saioa izanen da Elizondoko pilotalekuan San Frantzisko egunean, eguerdiko 12,30etan. Basaburuako Herri Kirol Taldearen eskutik, M. Arozena, X. Lizaso, E. Arozena, Telleria, Amaia Telletxea eta Peñagarikano bilduko dira. Anizko Elkartearen bazkaria izanen da gero herrikoendako.
- BKZk 'Kirola eta Abentura' izenarekin, hainbertze aktibitate eta ikastaro antolatu ditu abendu hasierako zubian. Piragüismoa, rafting, zaldi-ibildak... Informazio gehiagorako deitu 580490ra.

**BAZTAN FUNERARIA**  
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA  
• TRASLADOAK  
Jaime Urrutia 53 ELIZONDO  
Tfnoak: 580924-580814-580373

**ARROPA DENDA**  
**FANTXIKE**  
MERCERIA  
JAIME URRUTIA 24  
TFNO. 580312  
ELIZONDO

**CERVANTES HELVETIA SEGUROS**  
Era guzietako aseguroak  
Eska itzazu aurrekontuak  
Juana M. Urrutia

**MENDI OSTATUA**  
Santiago 25 - ☎ 580313  
ELIZONDO

M<sup>a</sup> Dolores Mirana **TOPOGRAFIA**  
**NEURKETAK • PLANOAK**  
Lur neurketak  
Luberriak  
Plantazioak, etab.  
Santiago 68, 3. Esk. ☎ 580143 • ELIZONDO

**Jar zaituz esku onetan!**  
Gure zentroa Metodologia Estetikoan akreditaturik dago.  
Dermosteticista batez gidatua eta Mediku Espezialista batez kontrolatua, zure arazoak moldatzeko tratamendu pertsonalizatu bati esker.  
Gainera Hidromasai Bañera, Sauna, Solariuma, Makilaia eta ilea kentzeko sistemak (elektrikoa, argizari beroa eta argizari epela zainendako espeziala) zuretzako.

 **Beatriz**  
Lurrindenda eta Apaindegia  
☎ 58 02 83 • Santiago 53 • ELIZONDO

**FZ**  
FOTO ZALDUA  
**ZURE EZKONTZARAKO**  
**FOTO eta BIDEO**  
Erreportai on bat  
ELIZONDO ☎ 580491  
DONEZTEBE ☎ 450364  
MARKOEN TAILERRA eta zure karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN  
DITUGU "FUJI" kalitatearekin.

**SOULE**  
Gurutze eta bilarriak  
☎ 45 30 38 ARIZKUN  
☎ 12 35 72 IRUÑA

SARA

## Hilerri berriko gurutzea benedikatu da

Omia Saindu arratsaldez jende ainitz bildu zen karia hortarat

MIXEL eta JACQUELINE

Jende ainitz bildua zen karia hortarat. Gure aldetik eskerrak eman nahi dizkiegu gurutze hau sortarazi dutenei: Mixel Idiart Sarako erretora; aita Marzel Etchandy beneditanoa, otoi-tzaren idazlea; Mixel Urbis-tondo Ihitiko semea, Kaikuenean bizi, harri zizelkatzaile arraroa; Mixel Duvert, Lauburu elkarteko ikerlaria, hunek du marrazkitu.

Mixel Idiartek dioenez, *'Gurutzea umila da, erakarpen eta sinbolo eklarle eta adierazle, sar atetarik hurbil, zuhaitzaren itzalpean dei egiten du bere oinetarat otoitz egiterat eta*



*Omia Saindu arratsaldez, mezperen ondotik, hilerri berrietan gurutze berriaren benedikatzea egin zen.*

*zizelkatua derro hau irakurtzerat: «Suge gaixtoa zutaz izan zen garrantua. Oi kurutzea zutan dugu salba-*

*mendua».* Gure partetik gomitatzen zaituztegu Larrungo harri garbian zizelkatua den gurutze eder eta berezi

### ttipi-flash

☐ **Su-egurra** eta arkazia nahi dutenek izena eman dezatela lehenbaitlehen Herriko Etxean. Xortea abendoaren 19an egingen da, igandez hamarrak eta eguerdi artean Herriko Etxean. Aurtengo egurrak Xabalon egingen dira eta haritz amerikanoa izanena da.

huni agur kartsu baten egiterat.

Horrelako harria bakarra litaik.



# ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562  
IRURITA - BAZTAN

## SUKALDE ETA BAINU MOBLEAK

Egoki-*ren* banatzaile  
baimendua



## HERRIKO ETXEO EDANTEGIA

*Michel eta Kaitin  
Guzendicain*

Tfnoa: 59 54 25 19  
64310 SARA



## LARRAMENDI • Supergarbiteta Idorrea

Saskaitz plaza 1 • ☎ 45 23 81 • ELIZONDO



Edredoia, alfombrak, arropak eta larruak, idorrean garbitzen dugu

## ‘Urdazuri’ ikusgarria arras polita izan zen

ALIZIA OLAIZOLA

Zortzirehun lagun baino gehiago bildu ziren azaroaren 21ean. Rogert Idiart Ainhoako erretorak asma-tutako ikuskizunera.

Urdazuri errekaen bazterretan zortzi herri hauek hedatzen dire: Ainhoa, Sara, Senpere, Askain, Ziburu eta Donibane Lohitzune, Zugarramurdi eta Urdazubi.

Ainhoako apezak erreka

hori hartu du musika ikuski-zun bat egiteko, Atsulai elkartearen laguntzarekin. Lehen aldia da, horrelako ikusgarri bat euskaraz egiten dela, nafartar eta lapurtarrak elkarreratuz.

100 kantari bildu ziren eta lau kantu berri abestu zuten, Atsulai elkarteko Maryliz Dagerrek gidatuz. Soinulari eta dantzariak ere izan ziren. Ur xirripa Urda-



zuri Fanik, hemengo 9 urteko neskatxa batek arras ongi errepresentatu zuen. Pascal Othegik ere parte

hartu zuen ikuskizunean eta Joxe Mari Satrustegi euskaltzainari aunitz gustatu zaidio besta honen gaia.

## ZUGARRAMURDI


## Pilotalekuaren obrak bultzada haundia hartu dute

KORO ETA MARGARI

Pilotalekuaren obrak, argazkian ikusten den bezala, bultzada haundia hartu dute. Nafarroako Gobernuak 25 milioi pezetako dirulaguntza eman du. Oraindik aunitz falta da (aurrekontua 60 milioikoa baita) baina herrian bertze umo-


rearekin ikusten da afera.

□ **Egin mus** txapelketak arrakasta haundia izan du eta bi bikote ailegatu ziren Iruñeko finalera: Baxko-Frantzisko eta Mikel-Alfredo. Nahiz eta fase hau ez gainditu Mikel eta Alfredo doi-doiean gelditu ziren, eta kazetariei eginiko deklarazioak



zioak dira hauek: ‘gaurtik gogor entrenatzen hasi be-

har dugu eta datorren urtean txapeldun’.



**LUR BERRI Kooperatifa**

SARA: 59 54 20 13  
EZPELETA 59 93 90 91

Abendoaren 8an EZPELETAko dendan egun berezia. Gauzak aurkituko dituzue 100etarik 10ez merkeago. Zatozte denak, gosaria eskeinia izanen da.

Zati honek  
**2.443 Pta.**

balio du  
2.443 : 5.600  
errebista =  
0,43 Pta. errebista  
bakoitzeko

## EZKONTZAK

**Jose Luis Telletxea Maia** eta **M<sup>a</sup> Ines Goienetxe Bidegain**, Bera eta Zugarramurdikoa, azaroaren 6an.

**Junkal Iparragirre Taberna** eta **Juan Manuel Aranibar**, Arantza eta Berakoa, urriaren 31n.

**Bernardino Urrutia Berrio** eta **M<sup>a</sup> Asunción Etxeberria Ramirez**, Iurritakoak, azaroaren 6an.

**Jean Louis Ordoki** eta **Nadine Goynetche**, Sara eta Urruñakoa, urriaren 30ean.

**Gratien Barrenetxe** eta **Beatrice Anthian**, Sara eta Donibanekoa, urriaren 23an.

**Xabier Aleman** eta **Miren Pagola**, Leitza eta Tolosakoa, urriaren 2an.

**Josetxo Etxarte Martinez** eta **Ana Sunsundegi Olazabal**, Igantzi eta Hondarribikoa, azaroaren 20an.

## JAIOTZAK

**Uxua Huizi Rayo**, Goizuetan, azaroaren 6an.

**Itxaso Larretxea Elizondon**, Donezteben, azaroaren 10ean.

**Itxaro Etxagüe Goia**, Arantzakoa, azaroaren 8an.

**Mickail Azkarraga**, Sarakoa, urriaren 31n.

**Eleé Vidal**, Sarakoa, azaroaren 7an.

**Joana Urrutia Etxeberria**, Irurritakoa, urriaren 26an.

**Jone Iribarren Imaz**, Sunbillakoa, azaroaren 19an.

## HERIOTZAK

**Micaela Iturburu** Etxeberria, Urdazubikoa, azaroaren 12an, 85 urte.

**Angel Mutuberria Bereau**, Arantzakoa, azaroaren 14ean, 84 urte.

**Pantxo Lefranc**, Sarakoa, azaroaren 13an, 58 urte.

**Miguel Dendarieta Arraztoa**, Elizondon, azaroaren 2an, 85 urte.

**Julian Santxotena Iturriria**, Erratzun, azaroaren 16an, 62 urte.

**Encarnación Gomez Mateos**, Elizondon, azaroaren 21ean, 89 urte.

**Jose Maria Osiñaga Otxoa**, Donezteben, urriaren 31an, 65 urte.

**Rosalía Sagaseta Arrieta**, Donamarian, azaroaren 20an, 86 urte.

## ETXALARKO UDALA

### Ostatu eta jatetxe zerbitzuak kontratatzeko lehiaketa

Udal honek, Udaletxeko behean eta lehen solairuan kokaturiko ostatu eta jatetxe zerbitzuak kontratatzeko lehiaketa publikora dei egiten du.

**Hileko kanona:** Lehiaketariak eskeintzan finkatuko du.

**Kontratazioko epea:** Lehiaketariak eskeintzan finkatuko du, hamar urtekoa gehienez izango delarik.

**Aurkeztu beharreko agiriak:** Baldintza pleguan agertzen direnak.

**Proposamen aurkezpena:**

1994eko urtarrilaren 14ko eguerdiko 12ak arte.

**Proposamenak jendaurrean zabaltzea:**

1994eko urtarrilaren 15eko eguerdiko 12etan.

*Baldintza plegua interesatuen eskura dago Udaleko idazkaritzan.*



Etxalarren, 1993ko azaroaren 16an  
Alkateak  
Miguel Mari Irigoien

**Ikatzak bakarrik  
espero duzula?  
Ba aurten Erregeek  
opari berexia  
ekarriko dizute...**



## Iñaki Perurenak esku bakarrarekin zuen marka hobetu du

*Leitzan Arkupeak elkartearen Anaitasun festan izan zen*

Iñaki Perurena harrija-sotzaileak 267 kiloko harria altxatu zuen esku bakarrarekin azaroaren 14ean Leitzako Amazabal pilotalekuan egindako jaialdian. Modu honetara, leitzarrak berak zuen marka gaintitu zuen eta munduko errekor berriezari zuen, Arkupeak elkartearen festan.

Iñaki Perurenak bi jasoa behar izan zituen marka egiteko; lehenbizikoan nekez berdindu zuen harria, baina epailearen usiez Zelaik lagundu egin zion azken momentuan. Beraz, baliogabe utzi zuen lehen altxaldia.

Bigarren saioan ere nekez ibili zen Perurena, baina lauzpabortz kolpe eman ondotik harria berdintzea lortu zuen eta badaezpada ere buelta bat eman zuen harria bizkar gainean zuela, sasoi ikaragarria erakutsiz.



Lan handia izan bada ere, marka berria egitea lortu zuen Iñaki Perurenak.  
Argazkia: JOSEBA

BKZk antolatuta

## Abenduko zubirako kirola eta abentura

Bidasoa KulTur Zerbitzuak antolatuta, kirola eta abentura elkartuko dituzten zenbait ekitaldi antolatu dira Inmaculadaren inguruko zubi luze hortarako.

Hilaren 3an (ortziraila), Belate eta Bertiz arteko zaldi ibilaldia izanen da (5.000 pzta). Larunbatean, egun osorako piraguismoa (1.500 pzta) eta igandean, rafting-piragua (3.500 pzta), baita egun osorako ere.

Asteleheneko kirola parapentea izanen da (2.000 pzta), asteartean rappel (1.000 pzta) eta asteazkenean arku jaurtiketa (7.700 pzta). Aktibitate guzietarako bonoa, zaldia ezik, 7.700 pezetakoa izanen da eta prezio horretan, monitorea, materiala eta garraioa sartzen da.

Informazio gehiago, 580490 telefonoan.

## Bortzirietako futbol derbya igande honetan jokatuko da

Igande honetan, abenduak 5, arratsaldeko 3,30etan jokatuko da Lesakako Kristo-Enea futbol zelaian Beti Gazte eta Gure Txokoa futbol taldeen arteko Bortzirietako derbya.

Iaz bezala, kirolaz gain, besta tiki bat ere izanen da igandeko partidua, bi herrietako txarangak eta jende aunitz espero baita.

Joan den urtean, zortzi



urte elkarrekin jokatuta gabe egon ondotik jokatuta zuten.

Lesakan 2 eta 1 irabazi zuen Beti Gaztek eta Beran ba-

nako berdinketa izan zen emaitza.

## Horrela ez dago irauterik

*Zerri-produkzioan bakoitza bere aldetik dabilen baserritarra kanpoko kompetentziaren eta produktore haundien menpe dago*

*Zerrikume eta zerri-gizenaren prezioa produkzio kostearen azpitik dabilkigu azken hilabeteotan. Egia da zerriaren sektorean ez dela arraroa preziotan gora behera dexenteak ikustea urte baten barnean, bainan halere, oraingo honetan antzematen da problema hori baino haundiagoa dela, prezioen jauste ikaragarri honen gibelean sektore osoaren antolaketa falta somatzen dela.*



**E**uskal Herriko baserritarrak bakoitza bere aldetik ibiltzen dira gehienbatean, eta gauzak horrela, ez dute kanpotik heldu den kompetentziari aintzina hartzeko modurik izaten. Halaxe dio EHNE sindikatuak 'Ardatz' aldizkarian gai honi buruz berriki argitaratutako kronika batean. Europako bertze erresumetako baserritarrak, ordea, saltzerakoan

elkartzeko kapazak dira, eta elkarrekin antolatuak daudenez, badute kontrolatzerik saltzen duten zerrikumearen prezioa.

*'Baserritar batek ondoko baserrikoak baino prezio hobean saltzean, behar bada, zerrikume bakoitzeko hogeï duro gehiago ateratzea lortuko du. Kooperatiba batek prezio hobean saltzean, seguraski, zerrikume bakoitzeko hirurogei edo ehunduro gehiago ateratzea*

*lortuko du'.* Hortxe dago kontua eta hortxe dago abantaila EHNEren ustez.

### Egoeraren analisisia

Prezioen beherakada Europako Ekonomia Elkarteko gehiegizko produkzioak eragin du zati handi batean. Superproduktio honi, halere, gehitu egin zaio bertze faktore bat: orain merkaturatu da produktore haundiek euren biltegietan gorderik zeukaten haragia,

EEEko diruz lagundua zena. Horrela, bada, merkatuan zerri-haragi pila dago bueltaka, eta ondorioz, prezioak beheiti egin dute arrapaladan. Dinamarkatik, konkretuki, zerri dexente ari omen dute ekartzen estatu espainolera.

Honetaz gain, badago bertze faktore bat zerriaren prezioa beheiti bulkatzen duena; baserritarrek zerri-tratantearekin duten menpekotasuna. Bertze modu

Juan Irazoki eta Pakita Etxenike, Zugarramurdikoak

# «Zerrikumea 5.000 pezeta azpitik ordainduz, dirua galdu egiten dugu»



► Nola dago egun zerrikumearen errentabilitatea?

►► Amortizazioa kontutan hartu gabe, bakarrik pentsua, argindarra eta holakoak kontutan hartuta, zerrikume bakoitzarekin 1.500 pezeta egungo prezioekin. Pixka bat defenditzeko, zerrikumeak gutienez 5.000 pzt. egin behar du.

► Saltzeko kontua nola duzue antolatua, tratanteen bi-

tartez, kooperatibaren batekin...?

►► Tratanteei. Alde honetan zerri gehienak Arraztoak biltzen ditu. Astero pasatzen da biltzera

► Zenbatsu zerrikume pro-

**«Amortizazioa kontutan hartu gabe, egungo prezioetan, 1.500 pzt. galtzen da zerrikume bakoitzeko»**

duzitzen da astero Zugarramurdi-Urdazubin?

►► Astero larehun bat zerrikume bai segurik!

batera errana Baserritarrak zerrikumeak edo zerrigizena saltzerakoan bakoitza bere aldetik ibiliz, ez dute modurik aurkitzen zerrien prezioak ongi atxikitzeko. Hortaz, momentu honetan zerrikumearen prezioa, banaz bertze, minimoen azpitik dago 2.000 edo 3.000 pezetatan.

## ITGren estudioa

Zerriaren ITGk egindako estudioan erraten denez, 'zerrikume-produkzioa arras egoera zailean dago aurten' eta hurrengo urteetarako ere, ez dago ikuspegi argiagorik. ITGk dioenez, zerrikumeak 'ez dira errentagarriegiak, eta kontuz ibili behar da inbertsioekin'. Ziklo-itxiko produkzioak ez daude hain egoera latzean ITGren ustez.

Joxemanuel IRIGOIEN

ITGk eskeini dizkigun datuen arabera, zona honetako 11 granjek dituzte 50 zerrama baino gehiago.



## SEKTOREAREN PISUA ZONA MAILAN (2)

	Zerri granjak	Zerramak banaz bertze	50 zerramatik goitiko granjak
<b>BAZTAN</b>	555	6,7	4
<b>URDAZUBI</b>	51	10,45	1
<b>ZUGARRAMURDI</b>	32	20,56	1
<b>LEITZA</b>	40	8,7	1
<b>ARESO</b>	21	3,5	-
<b>MALERREKA</b>	268	4,8	3
<b>BERTIZARANA</b>	24	7,4	1
<b>BORTZIRIAK</b>	274	3,6	-
<b>Denetara</b>	1.269	8,09	11

Datu Iturriak:

(1) Nafarroako Gobernuko «Precios y Mercados» aldizkaritik hartutako datuak

(2) Zerriaren ITGk emandako datuak

Jose Javier Etxeberria, Medicus Mundi erakundeko medikua:

## «Ruandan analfabetoak dira gehienak, edukazio mailan dute beharrik haundiena»

Jose Javier Etxeberria, 37 urteko goizuetarra da.

Ezkondua eta bi semeen aita, mediku ikasketak Iruñean egin zituen. Ondotik Tuterako ospitalean egon zen eta Bartzelonan 'medizina tropikala' ikasi zuen.

Dagoeneko Africa aldera joatea pentsatua zuen. Pentsatu eta egin, Ruandan sei urte igaro ditu, Medicus Mundi erakundeko kide bezala. Orain Goizuetan du kontsulta



«Goizueta bezalako terreno batean 50.000 pertsona bizi dira, kilometro bakoitzeko 525 pertsona, eta gehienak nekazaritzatik bizi dira gainera»

**ttipi-ttapa.** Zein da Medicus Mundi erakundearen zeregina?

**Etxeberria.** Medicus Mundi erakunde ez gubernalmentala da eta garapen edo desarroilo proiektuak egitera dedikatzen da. Proiektu asko dauzki momentu hontan Filipinetan, Mexikon, Burundin, Bolivian, Ruandan... Nafarroako delegazioak azken bi herrialde hauetan ditu proiektu haundiak.

**ttipi-ttapa.** Zu zeu Ruan-

dako herri baten egon zinen...

**Etxeberria.** Herria baino gehiago, azoka baten inguruan biltzen ziren baserri zabalduak ziren. Herriak ofizialki Nyarotovu zuen izena. Goizueta bezalako eremu batean 50.000 bat pertsona bizi dira. Bertako ospitalean egin nuen lana mediku bezala eta zuzendaria ere izan nintzen.

**ttipi-ttapa.** Euskaldun bakarra zinen?

**Etxeberria.** Ruandan be-

rrogei bat euskaldun izango ziren eta euskaraz egiten genuenak franko, 15 edo. Estatu espainoleko kontsulta bera bizkaitarra zen eta euskaraz egiten zuen. Nire laguna ere bilbotarra zen baina ez zekien euskaraz.

**ttipi-ttapa.** Han zinela sumatu al zenuen herrimina edo etxera bueltatzeko gogo?

**Etxeberria.** Kasik sei urte pasatuta bueltatzeko gogoia izaten da. Hortik aurrera beste planak egin behar dira,

edo gelditu edo etorri... Halere, handik hiru aldiz etorri nintzen, behin ezkontzera gainera eta emaztearekin bueltatu nintzen.

**ttipi-ttapa.** Ruanda bertako jendea zer moduz bizi da?

**Etxeberria.** Gehienak baserritarrak dira, %95a nekazaritzatik bizi da, baina aituzurra eta eskuak beste tresnik ez dute. Abelzantza eta komertzio pixko bat ere badago. Superpoblazio handia dago, kilometro bako-

tzeko 525 pertsona bizi dira, denak nekazaritzatik. Pertsona bakoitzak 20.000 pezeta ditu urte osorako, renta per capita esaten den hori. Behar dagoela bistan dago eta ia denetik behar dute, asko pobrezia batean bizi baitira eta gainera arrontz perspektiba guttakin.

**ttipi-ttapa.** *Zer da gehien behar dutena?*

**Ettxeberria.** Nere ustez, behar haundiena edukazio aldetik dute. Jendearen erdia baino gehixeago analfabetoa da eta oso gaztea, zortzi milioi biztanletik lau 14 urte baino gutxiagoak dira eta haurrak direla asko hiltzen dira. Formazio maila haundixagoa behar dute. Hemen kejaketen bagara, han problema guztiak multiplikatuak daude.

**ttipi-ttapa.** *Hango eritasunak ez hartzeko babes berezirik hartzen al zenuen?*

**Ettxeberria.** Batez ere ura edaterako orduan zaintzen ginen, ura filtratuakin eta horrela... malaria edo paludismoa ez hartzeko. Ilunabarrean berriz, euliek kozka ez egitea saiatzen ginen eta malaria egon zitekeen lekutik aldegin.

**ttipi-ttapa.** *Zein izan dira esperientzia honen alderik onena eta alderik txarrena?*

**Ettxeberria.** Onena beste bizimodu edo beste gizarte bat ezagutzea dela uste dut. Jende horrekin nahiko hartueman sakonak izan ditut. Txarrena berriz, hortik bertatik heldu da, dena nola bukatu den guretzat. Gu atzeri ginen handik eskapo, ge-



«Noizbait bueltatzeko gogoia dut... lagun asko utzi nituen eta seme zaharrena ere Ruandan jaio zen»

rrak fronte frentean harripatu zigun. Horrek utzi ninduen lur jota, kolpe ikaragarria izan zen. Azken urte hauetan biolentzia aldetik esperientzia arrunt gogorra izan dut, sekulan ez dut ikusi hainbeste jende hiltzen, alde batetik eta bestetik. Egoera politiko nahasia zen eta entenditzeko zaila. Ruanda bertako tribueen historiak nahasten dira hor, indarkerian batzuk besteak baino gehiago nahi dute izan eta...

**ttipi-ttapa.** *Gerragatik aldegin zenuela esan duzu. Bestela han gelditzeko asmoa zenuen?*

**Ettxeberria.** Ez, aurten pentsatzen nuen honara bueltatzea, baino bukaera

**«Beste bizimodu edo gizarte bat ezagutzea eta jende horrekin hartueman sakonak izatea da esperientziaren alderik onena»**

latza izan da. Han ez zegoen gelditzerik, gerra ospitaleko dinamikan sartuak bait ginen. Ospitaletik ez ginen ateratzen, zauriak zirela, hanka moztu behar zela, denetik... Ambiente ikaragarri baten sartu ginen eta halaxe bukatu zen, dena utzi eta ospa.

**ttipi-ttapa.** *Hango egoera baretuz gero, bueltatuko al zinateke berriz?*

**Ettxeberria.** Bai, lagunak badituz eta beti izaten da bueltatzeko asmoa. Seme zaharrena ere Ruandan jaio zen eta noizbait bueltatuko gera, hura pixko bat erakustera.

Testua: Aitor AROZENA  
Argazkiak: Xabier Mikel UIZI

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU 63 11 88 ☎

## Etxebizitzak

• **Elizondon** edo **Male-rrekan** logela edo pisu bat konpartitzeko behar dut. ☎ 121591 (arratsetan, Pili).

## Lana

• **Pertsona adintuak** zaintzen edo baserrian lan eginen nuke. Esperientzia eta kotxe adaukat. Ahal bada Orabidea auzoan. ☎ 581161 (Amaia).

• **Neska bat** behar dugu Hondarribiko etxe batean interna bezala lan egiteko. ☎ 635036 (goizeko 8-11).

• **Elektrizitate** eta pintura lanak egiten dira, baita zurgintza lan ttikiak ere. ☎ 631283.

## Salerosketak

• Hegaztiak ehizatzeke **ehizi txakurrak** salgai. ☎ 510362.

• **Ziklomotor** berria salgai, sorteo baten tokatua. ☎ 174075.

• **Bi ardizakur** ar salgai. Bi urtekoa debalde emanen nuke, 8 hilabetekoa saldu. ☎ (943)492044 (Jose Luis).

• **Bideo-jokoak** salgai (Master Sistem). ☎ 637788.

• **Traktore** txiki bat salgai dugu, oso merke. Agria markakoa. ☎ 504226.

• **Kamioi** bat, Renault 320 bolquete, SS-AP salgai. ☎ 581161 (Frantzisko).

• **Telefono** portatila salgai, Nokia-101, bi kargadorekin. ☎ 581161. (Fco.)

• **Akumuladoreak** salgai, prezio onean utziko ditut. ☎ 592157.

• **Josteko makina** elektrikoa, Agfa markakoa salgai. Egoera onean eta gutti ibilia. ☎ 635122.

• **Fotokopiagailu** bat salgai, Gestetner 2110-C, egoera onean. ☎ 637308.

• **Rodillo** plantxa in-

dustrial salgai, jate txex, hotel edo etxetarako interesgarria. ☎ 450708 eta 450925.

• **Mobileta** salgai, GAC Cady markakoa, prezio onean. ☎ 637410 (denda orduetan) eta 637734 (eguerdi edo gauetz).

• **Kongeladore** berri berria salgai. ☎ 637410 (denda orduak) eta 637734 (eguerdi edo gauean).

• **Opel Corsa GSI** 16v berri berria salgai (NA-AJ). 4 hilabete eta 2.000 kilometro. ☎ 631390

• **Janaridenda** bat salgai, Patxi Arrazola 9an. Interesatuak Ana Zub illagarekin kontaktoan jarri.

## Denetarik

• **Neska** bat behar da pisu bat osatzeko Burlatan. Arras ekonomikoa. ☎ 453174.

## Harremanak

• **Elizondoko** Nuria Barberena zoriondu nahi nuke bere 19. urtebetetzean. Zutaz maitemindurik da-

goen mutiko baten partez. J.J.M.

• **Goizuetako** Mirariri zorionak bere urtebetetzean (azaroak 20). Familiakoak.

• **Sunbillako** Urko Ibarri zorionak zure 5. urtebetetzean (azaroaren 24ean), zure guraso, arreba eta atautxi eta amatxiren partez.

• **Mugaireko** Yoli U. rentzat, bere urtebetetzearen egunean (azaroaren 27an) musu haundi bat mirrele baten partez. I.G.

• **Elizondoko** Gurutze Gorriko Xabi, Jexus, Pello Urrukarentzat zorionak soldaduska bukatzeagatik. Leitzako 5 admiradorak.

• **Berako** Maiteri: zorionak bere urtebetetzean (abendukoak 3), txanpaina esperoan dagoen lagun baten partez.

• **Berako** neska baten partez, Arantzako Igor oso ona zaude.

• **Berako** neska baten partez, Irungo Xabi Etxepare oso ona zaude. Kronoff.



muñeca  
de trapo

GIZONEZKOEN  
MODA

EMAKUMEZKOEN  
MODA

BLAK, IRUNGO LUIS MARIANON



**BORTZIRI**

ASISTENTZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

- \* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
- \* Bakarkako, kolektibo edota satelite bidezko antenak ere paratzen ditugu

Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91

# Zure hipoteka zaharrari ordezkoa ailegatu zaio.

## %8,75ko interesarekin

Pasa zaitez gure  
bulegoetatik

- BERA •
- DONEZTEBE •
- LEITZA •
- LESAKA •



**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA

## VIII. GURE TXOKOA IPUIN SARIKETA

Bidasoa eta Baztan inguruan bizi diren idazleentzat.

**Oinarriak:**

- 1.- 16 Uste beteak izan behariko du.
- 2.- Lanak 3 orri baino gehiagokoak izan behar dira eta makinaz idatzirik.
- 3.- Edozein gai euskaraz idatzia, argitaratu gabea, eta sariketatara bidaltzen duenak asmatua, onartuko da.
- 4.- Lan guztiak, egilearen izen eta abizena, zuzenbidea, telefonoa beste oinotxo batean idatzirik izan behariko dituzte.
- 5.- Lanak Urtarrilaren 11a baino lehen zuzenbide honetara bidaliko dira: GURE TXOKOA - KULTUR SAILA EZTEGARA - BERA (NAFARROA)
- 6.- Saria oroigarria eta 30.000 Pztakoa izanen da eta Epaimeharia aipamen berezia eman dezake.
- 7.- Sari banaketa lamotonean datorren Urtarrilaren 23an eginen da (eguerdiko 12etan).



## HAUR IPUINEN XXII. BERA SARIKETA

- 1.- Bidasoako Bortziriak ekualdean bizi direnentzat antolatzen da.
- 2.- Hiru maila izanen dira: A- 9 urte arte, B- 10 eta 11 urtekoak eta D- 12 urteik 16tara.
- 3.- Edozein gai euskaraz idatzia, argitaratu gabea, eta sariketatara bidaltzen duenak asmatua onartuko da.
- 4.- Lanak, orri bat baino gehiagokoak, eta hiru orri baino guttiagokoak izan behariko dira, eskuz edo makinaz idatzirik.
- 5.- Idazle bakoitzak bi ipuin bidaltzen ahal ditu.
- 6.- Lan guztiak, egilearen izen eta abizenak, zuzenbidea, telefonoa eta adina beste oinotxo batean idatzirik izan behariko dituzte.
- 7.- Lanak estalki batean sartuta GURE TXOKOARA Kultur saila BERA, Urtarrilaren 11a baino lehen bidali behar.
- 8.- Maila bakoitzak sari bat izanen du: Oroigarria eta liburu mordo bat.
- 9.- Sari banaketa Urtarrilaren 23an eguerdiko 12etan izanen da (Gure Txokoaren egoitzan).

# BENTA - BERRI

# Larruaren Etxea



▼ Kazadorak, jakak,  
galtzak, gonak,  
berokiak, boltso  
eta eranskinak



Egunero irekia, goizeko  
9etatik arratsaleko 7etara.



▼ Moda saltzen  
dugu prezio eta  
kalitate  
hoberenetan

IBARDIN, Tfnoa: 630 708 - **BERA**

# ETXANIZ

Lesakako Iturria anaiak



**ABENDUAN ere:**

Bañera nahiz  
dutxako manparatan  
eskeintza bereziak  
(kolokatzea gure  
kontura)

*Azulejo eta baldosekin hasi eta azken detaileraino  
zure bainua oso-osorik berritzeko gaiak:  
Sanitarioak, bainerak, manparak, griferiak, mobleak,  
ispiluak, kortinak, alfonbrak eta osagarriak*

IRUNen, Juan Arana, 3  
Tfnoa eta faxa:  
(943) 611767